



*Nafarroako Herri Kirol Federazioa  
Federación Navarra de Herri Kirolak*

## FEDERATUEN BAIMENA DATU PERTSONALAK TRATATZEKO

ABIZENAK:	IZENA:
NAN:	HELBIDEA:
PK:	HERRIA:
TELEFONOA:	EMAIL:
JAIOTZA DATA:	MODALITATEA:
GURASOAK/ LEGEZKO TUTOREA/ ORDEZKARIA (adin txikikoen kasuan): NAN:	

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko legeek zehazten dutenaren arabera<sup>1</sup>, baimena eman behar diguzu, berariaz, zure datu pertsonalak helburu jakin batzuetarako erabiltzeko. Horretarako, interesdunak NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOARI (aurrerantzean, NHKF) eta Euskadiko Herri Kirol Federazioari (aurrerantzean, EHKF) baimena eman behar dio. Datuak tratatzeko baimenik ez emateak berarekin dakar federazioaren lizentzia ez tramitatzea. Baimen hori formalizatzeke, egoki iruditzen zaizkizun laukiak markatu behar dituzu:

- Baimena ematen dut NHKFK eta EHKFK administrazio publikoan eta beste kirol erakunde pribatu eta publikoetan dituzten bidezko funtzioei dagozkien kudeaketetarako datuak tratatzeko.
- Guraso/legezko tutore gisa,adin txikikoen datuak tratatzeko baimena ematen dut, NHKFren eta EHKFren bidezko eginkizunak betetzeko.
- Baimena ematen dut nire osasun datuak interesdun gisa tratatzeko, berreskuratze fisikoko prozesuen jarraipena egiteko, baita nire egoera fisikoa eta nire osasuna prebenitu eta zaintzeko ere.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera, baimena ematen dut federazioaren lizentzia sinatu edo berritzeko.
- Baimena ematen dut honako hauek argitaratu eta zabaltzeko: nire identifikazio-datuak, agertzen naizen irudiak eta bideoak. Irudi edo bideo hauek NHKFren eta EHKFren web orrien edo sare sozialen bidez zabalduko dira. Kirol jardueretako antolatzaileek ere zabaldu ahalko dituzte
- Baimena ematen dut federazioaren edo federazioari atxikitako hirugarrenen jardueri buruzko jakinarazpenak bidaltzeko, baita kirol ekitaldi eta lehiaketei buruzkoak edo beste edozein motatakoak ere.
- Baimena ematen dut nire datuak kirol-ekitaldien antolatzaileei eta/edo babesleei jakinarazteko.

**Data**

**Federatu/interesdun sinadura**

**Guraso/legezko ordezkariaren sinadura (adin txikikoa bada)**

\_\_\_\_\_

<sup>1</sup>2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **2016/679 Erregelamenduaren 13. eta 14. artikulua**, eta 2018ko abenduaren 5eko Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko **3/2018 Lege Organikoaren 6. eta 11. artikulua**)



*Nafarroako Herri Kirol Federazioa*  
*Federación Navarra de Herri Kirolak*

<b>Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa</b>	
<b>Tratamenduaren arduraduna</b>	NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA
<b>Tratamenduaren xedea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Federazioaren ekitaldiak antolatzeko, garatzeko eta gauzatzeko behar den barne kudeaketa administratiboa.</li><li>- Datuak kudeatzea, Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen 49.2 artikuluan garatutako jarduera instituzionalak antolatzeko. Federazioa izanen da tratamenduaren arduraduna.</li><li>- Kontsultak inprimakien bidez kudeatzea. Horretarako baliabide telematikoak erabili eta kudeatu beharko dira.</li></ul>
<b>Tratamenduaren legitimazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Interesdunaren berariazko baimena.</li><li>- NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN interes legitimoa datuak tratatzeko.</li><li>- Legezko betebeharrak betetzea.</li></ul>
<b>Datuen kontserbazioa</b>	Bildutako datuak helburuak eta legezko betebeharrak betetzeko behar den denboran gordeko dira.
<b>Hartzaileak</b>	Kasu batzuetan, beharrezkoa denean eta aldez aurretik baimena eman ondoren, NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOAK erabiltzaileen datuak hirugarrenei lagako dizkie eta legezko betebeharra dagoenean.
<b>Interesdunen eskubideak</b>	Datuak atzitzea, zuzentzea eta ezabatzea, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala. Horri buruzko informazioa eskatzeko, idatzi helbide honetara: <a href="mailto:info@herrikirolaknafarroa.org">info@herrikirolaknafarroa.org</a>
<b>Informazio gehigarria</b>	Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza <a href="http://www.herrikirolaknafarroa.org">www.herrikirolaknafarroa.org</a> webgunean dago.